



### **Gutuna Klase partikularrak**

#### **Egoera:**

Iragarkia herriko dendan: Ingelesko eskolak emateko pertsona bat behar dela irakurri duzu, eta zeure burua eskaintzea erabaki duzu.

PERTSONA BAT BEHAR DA 11-12 URTEKO IKASLE BATI KLASE PARTIKULARRAK EMATEKO.

ESKOLAK INGELESA LANTZEKO IZANGO DIRA.

BEHARREZKOA DA INGELESEZ ONGI JAKITEA, ESKARMENTUA, SERIOTASUNA ETA IKASGAIA MODU ENTRETENIGARRIAN EMATEA.

IRAILEAN HASTEKO, ASTEAN 3 ORDU, ARRATSALDEZ. KLASEAK IKASLEAREN ETXEAN IZANGO DIRA. ONGI ORDAINDUKO DA.

Interesatuak helbide honetara idatzi: ..... Dato kalea 2, 3., ezk. Gasteiz

### **INGELESEKO ESKOLAK EMATEKO ZEURE BURUA ESKAINTZEKO GUTUNA**

**Nork:** zuk, zeuk


**Nola:** posta elektronikoz edo postaz

**Zer:** zeure burua eskaintzeko gutuna

**Nori zuzendua:** LMH 6. mailako ikasle baten gurasoei

**Aintzat hartzekoak:** nor zaren, ingeles maila, agiriak, eskarmentua, lan baldintzak..., bukaerako agurra

**Hitz-kopurua:** gutxienez **150** hitz



Gasteizen, 2013ko.....

Guraso horiek:

Klase partikularrak 1

Gasteizen, 2013ko uztailearen 2an

Guraso horiek:

S egit.

Miren Biteri naiz, eta iragarkiarri erantzuteko idazten dizuet, zuen seme/alabari ingeleseko [eskolak emateko gai naizela ustea] dut eta.

Ingeles maila handia dut, bai idatzizkoan baita ahozkoan ere. First agiria lortu nuen iaz, eta Advanced prestatzen ari naiz aurten. Horrez gainera, Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan ere izan naiz sarritan, eta ingelesa naturaltasunez hitz egiteko gaitasuna eman didate egotaldi horiek.

lex.

[Ingeniaritzako azken maila ikasten hasiko naiz irailean, eta, aurreko urteetan bezala, serio jardungo dut nire ikasketetan.]

Khr.:  
Hori hobeto aurreko lerrokadan

a denb p

Hala ere, iragarkian diozue 11-12 urteko ikasle bati begira prestatu behar direla klase partikularrak, eta haren beharretara egokitzeko ahalegina egingo nuke; ahalik eta eskolarik atsegínenak prestatzen saiatuko nintzateke beraz, aspertu ez dadin. Aurreko ikasturtean zehar ere adin horretako [beste ume batzuk zaindu ditut] eta badakit zer nolakoak diren, eta zein diren euren zaletasunak.

Khr.:  
Egokitasun gutxikoa.

lex.

Orduategia oso astuna izan ez dadin, asteeko hiru eskola orduak ordu eta erdiko bi saiotan, edo ordubeteko hirutan banatzea proposatzen dizuet. Nire aldetik ez dago eragozpenik aukera bata edo bestea hartzeko. Gainera, behar izanez gero, zuen seme/alabaren azterketa garaian, larunbat goizetan beste saio bat gehitzeko ere prest egongo nintzateke.

Besterik gabe, nire eskaera kontutan hartuko duzelakoan,

Miren Biteri

Klase partikularrak

Idazlan laburra 4

Kalifikazioa:

7

Aztertzaileen zehaztasunak: + 2,4,6,8,9,15

EGOKITASUNA/ EDUKIA: 2,5

Atazak eskatu diona ondo bete du; izan ere, eskatu zaizkion ia puntu guztiei heldu die. Informazioa egoki eta ugari eman du. Erabili duen erregistroa eta testu-egitura egokiak dira.

MOLDEA. KOHESIOA  
ETA KOHERENTZIA: 2

Testu aberatsa da. Era askotako egiturak erabili ditu. Ideiek hari logikoa badute, nahiz eta informazio hutsuneren bat edo beste izan edo ideiaren bat lekuz kanpo izan edo oso egokia ez izan. Esate baterako, hirugarren lerrokadaren hasiera "Ingeniaritzaren azken maila ikasten hasiko naiz irailean ...". Ideiak lerrokadetan ondo bildu ditu. Testua erraz irakurtzen da.

ZUZENTASUNA: 2,5

Gramatikaren arau nagusiak ongi menderatzen ditu. Akatsen bat edo beste badu, baina gutxi dira: "... emateko gai naizela ustea dut"; "... ahalegina egingo nuke eta saiatuko nintzateke" egoera erreala denean. Esaldien egitura egokia da eta hitzen ordena naturala.

Klase partikularrak 2

Iturruma kalea, 2, 3., ezk  
Iruñea (Nafarroa)  
Gasteizen, 2013ko martxoaren gan.

[Guraso maiteok: ]

Nire izena Martín da, eta hogeita hamaika urte dituen gazte bat naiz. Herriko denda batean ikusi dut zuek jarritako iragarkia; 11-12 urteko ikasle batek ingelesa lantzeko eskolak behar dituela, alegia.

**dekl.** Suposatzen dut adina horrekin LMH 6. Mailako ikaslea izango dela. Hori esaten dizuet hainbat urtez aritu naizelako maila horretan klaseak ematen. San Fermin ikastolan, hain zuzen ere. ]

**S egit.** [Nire ikasketei begira, magisteritza ikasketak burutu nituen hemen, Gasteizen. Bukatu nituenean atzerrira joan nintzen ingelesarekin jarraitzeko. ] Bi urtez egon nintzen Londresen. Ingeleseko goi mailako ikasketak amaitzean, han geratu nintzen beste bi urtez, klaseak ematen. Londresetik bueltan Iruñean aurkitu nuen lana eta hor aritu naiz azkenengo urteotan. Beraz, eskarmentua daukat klaseak ematen adin horietako ikasleei, atzerrikoei zein hemengoëi.

**d erg.** [Zoritarrez, nire ama larri dabil, gaitz bat jota, eta horregatik erabaki dut Gasteizera bueltatzea, denbora gehiago berarekin egotearren. ] Gustatuko litzaidake lan baldintzak zehaztea eta, dena ondo joatekotan, irailan ekitea klaseak emateari zurenean, [ modu dibertigarrian baina seriotasunez. ]

**S bald dekl/dekl** Zuen erantzunaren zain gelditzen naiz.  
Adeitasunez,

**Moldea.**  
Erregistro  
desegokia.

**Khr.:**  
Desegokia.

**Moldea.**  
Erregistroa.

**Khr.:**  
Desegokia.

**Khr.:**  
Garatu  
gabea.

Martín Hiribarren

Klase partikularrak

Idazlan laburra 5

Kalifikazioa: **4**  
Aztertzaileen zehaztasunak: + 4  
- 2,3,8,11,15

**EGOKITASUNA/ EDUKIA:** 1

Atazak eskatu diona bete du, baina ozta-ozta. Atazan eskaini zaizkion zenbait arrazoibide baztertu egin ditu: lan baldintzak, eskolak emateko modu entretenigarria ... Eta horien ordeztaz betetzeko pertinenteak, egokiak, ez diren hainbat eduki sartu ditu, esate baterako, amaren gaixotasuna. Testu-genero egokia erabili du, baina erregistroari dagokionez, hutsuneak ditu: "guraso maiteak" eta gutunean zehar hartzailearen pertsonak nahasian erabili ditu: orain zuek, orain zu ...

**MOLDEA. KOHESIOA ETA KOHERENTZIA:** 2

Lexiko egokia eta oinarriko egiturak erabili ditu, nahiz eta batzuetan hitzen batean edo bestean nahastu: magisteritza ikasketak. Gutunak badu hasierako agurra, edukia eta bukaerako agurra. Ideiek hari logikoa badute. Lokailuak edo antolatzaileak erabili ditu, nahiz eta batzuetan oso egoki ez erabili: "Nire ikasketei begira, ...". Ideiak lerrokadatan egoki banatuta daude.

**ZUZENTASUNA:** 1

Akats ugari egin ditu. Batzuk egitura mailakoak, eta beste batzuk morfosintaxi mailakoak: "Beraz eskarmentua daukat", "gaitz bat jota", "gustatuko litzaidake ... zehaztea ... joatekotan", "irailan", "hogeita hamaika urte dituen gazte BAT naiz" ... Bere lehen-hizkuntzaren eragina agerikoa da egituraren batean: "Zure erantzunaren zain geratzen naiz".